

Pertsona bati baja emateko prozesuaren hasiera, Biztanleen Erroldan bidegabez erroldatuta egotearren

Udal hau jakitera heldu da Eranskinean ageri dan laguna bidegabez dagoela inskribatuta Gautegiz Arteagako Biztanleen Udal Erroldan, ez dalako bizi erroldatuta ageri dan helbidean, espedienteen jasota dagozan ikerketek erakusten dabien lez, eta horrenbestez hausu egiten dabela Toki Erakundeetako Lurraldeko Biztanleria eta Mugaketako Erreglamentuaren 57. eta 68. artikuluetan xedatutakoa; horregaitik, eta Estatistikako Institutu Nazionalaren Zuzendariaren eta Lurralde Lankidetzako Zuzendari Orokorraren 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 3. atalean xedatzen danari jarraituz, hauxe agintzen dot:

Lehena: Behar diren tramiteak hasi Eranskinean ageri diren lagunei baja emateko Gautegiz Arteagako Biztanleen Erroldatik, bidegabez erroldatuta egotearren.

Bigarrena: Interesatua bere helbidean aurkitzerik ez dagoenez, Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez jakinazotea eta 15 eguneko epea emotea deritxozanak alegatzeko. Epe horretan alegazinerik egin ezik behin betiko baja emongo jako, gehiagoko tramite barik.

Espediente zenbakia Pasaportea/NAN Helbidea

2020-00387 Y06487264J, Zelaieta, 8 – 1 izd

2020-00387 TZ400839 Zelaieta, 8 – 1 izd

2020-00387 055464137 Zelaieta, 8 – 1 izd